

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018-2019 Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018-2019

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBE KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BATXILERGO	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	LATINA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>			
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	1. Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia. 2. Kompetentzia sozial eta zibikoa. 3. Gizarterako eta hiritartasunerako kompetentzia 4. Arterako kompetentzia. 5. Kompetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Maite Revilla	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018-19

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimererako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Irakurketaren eta analisi morfosintaktikoaren bidez, latindar testuak itzultzea, ulertzea eta aztertzea, aintzinako Erromako errealitate sozio- kulturala ezagutzeko eta interpretatzeko. 2. Eguneroko hizkuntzan eta terminologia zientifiko-teknikoan ageri diren latindar jatorriko hitzak identifikatzea eta baiostea, eta horretan, etimo,aurrizki eta atzizki latindarrak identifikatzea, norberaren lexikoa aberasteko eta ahozko nahiz idatzitako adierazpena hobetzeko.	1. Ea gai den gero eta zailtasun handiagoko testuak aztertze, itzultze eta iruzkintzeko. 2. Ea gai den egile latindar klasikoen genero guztietako jatorrizko testuak nahiz testu itzuliak ulertze eta iruzkintzeko. 3. Ea gai den esaldi soil eta errazen erretrobertsio- jarduerak egiteko, eta horretan, ea latinaren berezko egiturak erabiltzen dituen. 4. Ea gai den dakizkien hizkuntzetan latinezko termino gardenak eta lokuzio

3. Latinaren oinarri eta egitura linguistikoak ezagutzea eta zuzen erabiltzea, eta horretan, oinarri eta egitura horiek norberaren hizkuntzan nagusi direnekin alderatzea, ezaguera horiek guztiak latinezko testuak aztertzean, itzultzean eta interpretatzean erabiltzeko, norberaren hizkuntza sakonago ezagutzeko eta beste hizkuntza batzu errazago ikasteko.

4. Literatura-genero desberdinetako testu latindarrak modu kritikoan aztertzea, eta horretan, informazioa lortzeko prozesuan lehen mailako iturriak erabiltzeak zer-nolako garrantzia duen ohartzea, antzinako erromatar mundua sakonago ezagutzeko eta ulertzeko, eta mundu horrek utzitako kultura-ondarea aintzat hartzeko.

5. Erromako kulturak egindako ekarpen nagusiak identifikatzea eta modu kritikoan aztertzea, eta horretan, ekarpen horiek Mendebaldeko zibilizazioa hezuramitu dutela onartzea, gure historia eta kultura hobeto ulertzeko, batetik, eta ondare hori zaintzeko nahiz babesteko, bestetik.

6. Informazioa bilatzean, aukeratzean eta prozesatzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo, kritiko eta etikoan erabiltzea, aintzinako Erromako zenbait alderdiren berri sakonago jakiteko.

Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, norberarenaz bestelako hizkuntzak ikastea eta beste ikasgai batzuk lantzean garatutako komunikazio.ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta horretan, autorregulazioa sustatzeko eta ikaskuntzaren eremuan autonomia lantzeko norberak dituen gaitasunetan konfiantza izatea

latindar arruntak bereizteko eta haien esanahia azaltzeko.

5. Ea badakien latindar jatorriko etimoi bilakaera fonetiko arauak aplikatzeko, eta gai den ondare.hitzen eta kultismoen arteko lotura semantikoak zein diren esateko.

6. Ea gai den bere hizkuntzan elementu lexiko latindarrak identifikatzeko.

7. Ea gai den zenbait idazketa-sistema bereizteko, eta ea badakien zein den alfabeto latindarraren jatorria.

8. Ea gai den esaldi eta testu latindarretan oinarriko elementu morfologikoak eta hitz arruntak identifikatzeko eta aztertzeo, eta horretan, ea gai den latinaren eta dakizkien beste hizkuntza batzuen arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzeko.

9. Ea badakien Erromaren sorrera eta bilakaera gertatu zireneko marko geografiko eta historikoa identifikatzen eta deskribatzen.

10. Ea badakien zein diren Hispaniaren erromanizazio-prozesuaren ezaugarri nagusiak.

11. Ea badakien zein zen Erromako oinarriko antolaera politiko eta soziala.

12. Ea badakien zein diren mitologiaren eta erlijioaren ezaugarriak, eta horretan, ea gai den haien eta gaur egungo mito eta erlijioen arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzeko.

13. Ea badakien Erromako arte klasikoaren ezaugarri nagusiak, eta gai den garai hartako arte- adierazpen garrantzitsuenak deskribatzeko.

14. Ea badakien zein diren Erromatar Zuzenbidearen oinarri nagusiak, eta ea gai den Erromatar Zuzenbideak gaur egungo zuzenbidean zer-nolako eragina izan duen azaltzeko.

15. Ea gai den mapa batean hizkuntza indoeuroparren, latinaren eta Europako nahiz Espainako hizkuntza erromantzeen marko geografikoa kokatzeko, eta ea badakien zein den hizkuntza horien guztien jatorria.

16. Ea gai den, informazioa bilatzean, aukeratzean, komunikatzean eta zabaltzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo, eraginkor eta kritikoan erabiltzeko.

Ea gai den hizkuntzak ikastea tartean diren ikaskuntza.prozesuez gogoeta egiteko, eta horretan, ea baduen konfidantzarik bere gaitasunetan.

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguaren daturik errelebanteak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

- **1. arazo egoera / Situación problema 1:**

Testuingurua: erromako gizartearen bizimodua: zer dakigu honi buruz?

Arazoa: erromako gizarteari buruzko testuak ulertu eta itzultzeko gai izateko hizkuntza eta gramatika kontzeptuak landuko dira.

Helburua: erromako gizartea nola bizi izan zen eta bertako historia ulertzeko garatuko da arazo egoera hau.

- **2. arazo egoera / Situación problema 2**

Testuingurua: mitologia eta erlijioa.

Arazoa: Latinezko testu askotan erlijioa eta mitologiarekin erlazioatutako testu asko agertuko dira. Horretarako, mitologiari buruzko kontzeptuak ulertzea ezinbestekoa izango da.

Helburua: latinezko mitologia eta erlijioaren kontzeptuak ulertu ahal izatea.

- **3. arazo egoera / Situación problema 3**

Testuingurua: familia, hiria eta erromako ikuskizunak lantzeko proiektua.

Arazoa: "Miles Gloriosus" irakurmena kontuan izanik, antzerkia ulertzeko ezaugarriak garatuko dira.

Helburua: benetako ikuskizun bateko ezaugarriak ulertzea.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektua, ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

- **1. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 1**

- 1. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 1ª situación

- Hizkuntz indoeuoparren, latinaren eta Europako nahiz Espainako hizkuntza erromantzeen mapa.
- Kasuen baloreak.
- Lehen, bigarren eta hirugarren deklinabideak.
- Aditza: Indikatiboko orainaldia, lehenaldi inperfektua eta lehenaldi perfektua aktiboak.
- Preposizioen erabilera.
- Izenordain pertsonalak eta posesiboak.
- Sintaxi: perpaus sinpleak.
- Lexikoa: etimoak eta aurrizki eta atzizki latindar nagusiak.
- Erromako historia eta gizartea.
- Esaldi eta testu egokituen itzulpena. Guztiak Erromako historia eta gizartearekin erlazioatuta.

- **2. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 2**

- 2. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 2ª situación

- Laugarren eta bosgarren deklinabideak.
- Aditza: Indikatiboko geroaldi inperfektua eta lehenaldi pluskuanperfektua.
- Era pasiboa.

- Erlatibozko izenordaina
 - Zenbakiak.
 - Erakusleak.
 - Sintaxi: esaldi pasiboa, erlatibozko perpausak.
 - Lexikoa: etimoak eta aurrizki eta atzizki latindar nagusiak.
 - Mitologia eta erlijioa.
 - Esaldi eta testu egokituen itzulpena. Testu mitologikoak
- 3. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 3
3. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 3ª situación

- Konparatibo eta superlatiboak
- Aditza: subjuntibo aktibo eta pasibo
- Infinitiboa.
- Partizipioa.
- Sintaxi: UT, CUM eta NE baloreak. Infinitibo eta partizipioaren sintaxi.
- Lexikoa: etimoak eta aurrizki eta atzizki latindar nagusiak.
- Familia. Hiria. Ikuskizunak.
- Esaldi eta testu egokituen itzulpena.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- Metodologia inklusiboa, anitza eta zabalak.
- Gaiak malgutasun eta aniztasunekin aurkeztuko dira.
- Ikasgaiaren arlo desberdinak : latina, testu latindarren interpretazioa, lexiko latindarraren bilakaera eta Erromak utzitako ondarea erlazioatuko dira.
- Testuen itzulpena baliabide ezin hobea izango da aurreko arlo guztiak ondo jabetzeko
- Esaldi eta testuen itzulpenak erabiliko dira azalpenekin batera ikasleak gero eta autonomia gehiago lor dezan.
- Etxerako lanak erabiliko dira edukiak indartzeko eta akats arruntak zuzentzeko.
- Ikasleen partizipazioa guztiz beharrezkoa izango da.
- Talde lanak eta sarean dauden errekursoak erabiliko dira teoriako eduki guztiak lantzeko.
- Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Planean adierazten den bezala, irakurmena lantzeko atazak egingo dira. Ataza horiek egiteko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa hirugarren ebaluazioan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>-Azterketak: ebaluaketa bakoitzean gutxienez bi azterketa egongo dira. Azterketetan gutxienez 4 bat atera behar da media egin ahal izateko.</p> <p>-Proiektu bat egingo da ebaluaketa bakoitzean. Proiektua gainditzea ezinbestekoa izango da irakasgaia gainditzeko. Proiektuaren nota bakarkakoa izango da. Proiektuan kopiaketa hutsa ez da onartuko eta ikasleak ez du proiektua gaindituko.</p> <p>-Klasera etortzea, klaseko jarrera, klasean lan egitea, etxerako lanak egitea, kuadernoak eta errefortzurako ariketak. Klaseko jarreraren hurrengo puntuan hartuko dira kontuan:</p> <p>1.-Asistentzia eta puntualtasuna:- Klasea etortzea derrigorrezkoa da. Ebaluaketa bakoitzean %20-ko faltak justifikatu gabe izanik suspenditzen da gaia. Falta larria egiteagatik baten bat kaleratua izanez gero,falta horrek zenbatuko du notan ere,justifikatu gabeko falta moduan.</p> <p>2.- Errespetoa:Ikaskideko begirunea (elkar ez jo,ez insultatu,ez bota gauzak,banan-banan hitz egin...),materialarekiko begirunea (Ez apurtu ezer,ez zikindu,ez bota gauzak,...)irakaslearekiko begirunea.</p> <p>3.- Materiala ekarri eta lana egin:Klasera beti koadernoak eraman behar da eta emandako fotokopiak ere.</p> <p>4.- Adi egon eta partehartu ahal den guztia.</p> <p>5.- Interesa.</p> <p>6.- Klaseak ez ebaki.</p> <p>Klasean lan egitea eta kuadernoak: Klasean egiten den guztia koaderno batean bilduko da.Koadernoak ondo izateko egunean eramango</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Ezaguerak: %70 ● Proiektua: %20 ● Jarrera, etxerako lanak, errefortzu ariketak: %10

da,garbi eta ordenaturik.Koaderno edozein momentuan eskatu ahal da nota jartzeko,beraz beti eguneratuta izan behar dute. Baloratuko dira lanak, ariketak eta koadernoak. Dena eginda, ondo eta informazioa landuta badago

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

- Etengabeko ebaluazioa. Ikasgaia gainditu ahal izateko azterketa guztietan gutxienez 4 bat atera behar da eta proiektua gainditu behar da.
- Ebaluaketa bat ez bada gainditzen, hurrengoa gaindituz gero aurrekoa gainditzen da, baina ezin izango da 5 bat baino gehiago atera. Azkenengo ebaluaketa ez bada gainditzen, Ekaineko ohiko eta ez ohiko azterketak egin beharko dira.
- **Ikasle bat, ikasturte osoko saioen %20ra justifikazio barik azaltzen bada, ebaluazio jarraia izateko eskubidea galduko du, eta ondorioz, irakasgaia ezohiko frogan aurkeztu eta gainditu beharko du.**

OHARRAK / OBSERVACIONES

- Agenda 21
- Hezkidetza (Aniztasuna): Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.
- HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan-saio batzuk antolatuko dira, eta bertan landutakoa 2. eta 3. ebaluaketetan zehar ikasgeletan gauzatuko da. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.
- Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzea.